

BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

2755

AGINDUA, 2018ko maiatzaren 15ekoa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez dei egiten baita EAEn GIBa/hiesa, C hepatitis (CH) eta sexu-transmisiozko infekzioak (STI) prebenitzeko eta kontrolatzeko programak garatzen dituzten irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeek laguntzak emateko.

GIBaren/hiesaren, CHren eta STIen arloan irabazi-asmorik gabeko ekimen sozialeko erakundeek EAEn gauzatutako jarduerak, administrazio publikoek egindako jarduerekin batera, ezinbesteko tresna dira infekzio horien transmisioa prebenitzeko eta dagoeneko gaixotasuna duten pertsonen egoera hobetzeko lanean.

Euskadirako Osasun Politikak 2013-2020 dokumentuaren 2.11 helburua sexu-transmisiozko infekzioak eta GIBaren diagnostiko berantiarra murriztea da, batez ere prebentzioan eraginez.

Osasuneko sailburuaren 2018ko otsailaren 21eko Aginduaren bidez (zeina euskadi.eus egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu baitzen) onartutako Osasun Sailaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoak ezartzen duenez, osasuna sustatzea eta gaixotasunak prebenitzea da Sailak diruz laguntzeko duen ildo bat. Lan-ildo horretan kokatzen da GIBaren/hiesaren alorreko diru-laguntza, eta horren xede nagusia da GIBaren transmisioa eta, oro har, sexu-transmisiozko infekzioak biztanleengan prebenitzea, gizonezkoekin sexu-harremanak dituzten gizonezkoen kolektiboari bereziki bideratua.

Testuinguru horretan kokatu behar da, halaber, Euskadin C Hepatitisari Arreta emateko Estrategia, Osasuneko sailburuak 2015eko uztailaren 14ko aginduaren bidez onartutakoa. Dokumentu horretako 2 estrategia-ildoaren oinarria da C hepatitisaren birusa (CHB) transmititzea eragozteko duten neurriak sustatzea. Zehazki, xede nagusi gisa ezartzen da «CHBaren transmisioa eragozteko prebentziozko neurriak sustatzea, osasunaren esparruan, zain barneko bidezko droga-erabiltzaileen eta gizonezkoekin sexu-harremanak dituzten gizonezkoen kolektiboan».

Garatu beharreko jardueren artean ezartzen da, orobat, «Hiesa eta Sexu Transmisiozko Infekzioen Planarekin elkarlanean jardutea bide parenteraleko droga-erabiltzaileen eta gizonezkoekin sexu-harremanak dituzten gizonezkoen kolektiboekin».

CHak eta GIBak, hain zuzen, transmisio-bideak partekatzen dituzte hein handi batean (injektatutako drogen erabilera, gizonezkoekin sexu-harremanak dituzten gizonezkoen arteko transmisioa) eta, beraz, prebentzio-neurriak eta gizarte-kolektibo ahulenak ere. Hori dela eta, agindu honen xede nagusia zabaltzea egoki ikusten da, eta horregatik gehitu da, hain justu, CHaren prebentzioa.

Testuinguru horretan, agindu honek irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeek 2018an zehar egiteko proposatutako proiektuentzako diru-laguntzen deialdia arautzea du xede. Jarduera horiek EAEn garatu behar dira eta GIBa/hiesa, CHa eta STIak prebenitzeko eta kontrolatzeko helburua izan behar dute.

Deialdi honen eta beraren ebazpen- eta izapidetze-jardueren esparru juridikoa bat dator honako xedapen hauekin: azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua, zeinak onartzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina;

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren oinarritzko arauak; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren oinarritzko arauak, zeinak onartzen baitu diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea.

Deialdi honen laguntzek ez dute lehia faltsutzen edota faltsutzeko arriskurik eragiten. Hortaz, bateragarriak dira barne merkatuarekin, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuen 107.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Agindu honek behar adinako aurrekontu-kreditua du, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak 2018ko ekitaldirako onartzen dituen abenduaren 22ko 5/2017 Legearen arabera.

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Deialdiaren eremua eta helburua.

1.– Laguntzetarako deia egiten zaie EAEn 2018an zehar GIBa/hiesa, CHa eta STIak prebenitzeko eta kontrolatzeko jarduerak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko eta gizarte-ekimeneko erakundeei. Lehentasuna emango zaie kolektibo ahulenei zuzendutako jarduerari, biztanleria orokorra xede duten jarduerak baztertu gabe, agindu honen 11. artikuluan xedatutako balioeste-irizpideen arabera.

Deialdi honen ondorioetarako, biztanle kalteberatzat hartzen dira GIBa, CHBaren eta sexu-transmisiozko infekzioen eragin eta gaixotasun-maila handia dutenak, hala nola gizonezkoekin sexu-harremanak dituzten gizonezkoak, etorkinak, bide parenteraleko droga-erabiltzaileak eta prostituzioan aritzen direnak.

2.– Deialdi honetako laguntzen onuradun izango dira EAEn garatzen diren honako proiektu mota hauek:

a) Gizonezkoekin sexu-harremanak dituzten gizonezkoen kolektiboari bideratzen diren esku hartzeko proiektuak, ikusirik, kolektibo horretako GIBaren, CHaren eta STIen garrantzia epidemiologikoa egun.

b) GIBari, CHari eta STIei dagokionean kalteberak diren bestelako kolektiboari bideratutako proiektuak, hala nola etorkinak, bide parenteraleko droga-erabiltzaileak, prostituzioan aritzen direnak eta, oro har, gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonak.

c) GIBaren, CHaren eta STIen infekzioen diagnostiko goiztiarrera bideratutako proiektuak.

d) GIBa duten pertsonen laguntza psikologikoa eta soziala emateko proiektuak.

3.– Deialdi honetan diruz lagundutako ekintzetatik kanpo geldituko dira Osakidetza edo Osasun Sailak garatutako jardueren parekoak diren ekintzak. Horri dagokionez, ikastetxeentzat prestatutako material pedagogikoa aipatu behar da, sexualitatearen eta afektibitatearen heziketarako programak garatzeko eta GIBa, STIak eta nahi gabeko haurdunaldiak prebenitzeko, hain zuzen.

2. artikulua.– Entitate onuradunak.

1.– Deialdian parte hartzeko interesa duten irabazi-asmorik gabeko eta ekimen sozialeko erakundeek honako eskakizun hauek bete beharko dituzte:

a) Erakundeek legez erataka egon behar dute, eta erregistro administratibo ofizialean behar bezala izena emanda, horien izaera juridikoaren (erakundea, elkarte edo bestelakoak) eta egoitza

sozialaren lurraldearen arabera, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta urtebete lehenagotik gutxienez.

b) Ez dute irabazi-asmorik edukiko.

c) Beteta edukiko dituzte zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari lotutakoak. Diru-laguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta izango dituzte.

d) Zehapen administratibo edo penala izateagatik diru-laguntzak eta laguntza publikoak jasotzeko aukera galdu duten elkarteek ezin izango dute deialdian parte hartu epaiak edo ebazpenak ezarritako aldian. Era berean, ez dute parte hartzerik izango horretarako ezgaitzen dituen debeku legalen bat duten entitateek, sexu-bazterkeriagatik ezarritako debekuak barne.

2.– Erakundeek artikulu honetan xedatzen diren eskakizunak bete beharko dituzte laguntza ematen duen ebazpenaren bidez diru-laguntzen onuradun izateko. Era berean, prozesu osoan zehar bete beharko dira betekizunak, emandako diru-laguntza likidatu arte.

3.– Agindu honen 7. artikuluan xedatutakoaren arabera eta organo kudeatzaileak beharrezkotzat jotzen dituen egiaztatze-jarduerak ezertan eragotzi gabe, erakundeek erantzukizunpeko adierazpen bat egin beharko dute, onuradun izateko ezgaitzen dituen debekurik ez dutela justifikatzeko.

3. artikulua.– Diru-laguntzaren aurrekontu-hornidura eta deialdiaren organo kudeatzailea.

1.– Agindu honen helburua betetzeko, hiturehun mila 3(00.000) euro bideratuko dira.

2.– Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza da deialdiaren organo kudeatzailea.

4. artikulua.– Gastu diruz lagungarriak.

1.– Laguntzak jarduerak ordaintzeko dira, eta ez dira erabiliko langile-egitura egonkorra mantentzeko edo entitateen azpiegitura fisikoetan inbertitzeko.

2.– Diruz lagundu ahal izango dira diru-laguntza jaso duen programarekin erlazio zuzena eta objektiboa duten jarduerak eragindako gastuak, betiere behar bezala zehazten badira entitateak aurkeztutako proiektuan eta 14. artikuluan xedatutakoaren arabera justifikatzen badira. Aipatutako gastuak, diru-laguntza jaso baino lehenagokoak izan ahal izango dira, baina, betiere, 2018an eginak.

3.– Jarduerarako diru-laguntza erabil daiteke entitateko soldatapeko langileen kostuak ordaintzeko, langileek jarduera horretan egindako lanari dagokion proportzioan, eta zenbateko osoaren % 10 erabili ahal izango da zeharkako kostuak ordaintzeko. Zeharkako kostuak dira entitatearen egiturazko gastuak, azpiegitura fisikoenak barne, baita dieta-, desplazamendu- eta kudeaketa-gastuak ere, beharrezkoak direnak diru-laguntza jaso duen jarduera bat egiteko, zuzenean jarduera jakin horri ez dagozkion arren.

4.– Ez dira diruz lagunduko finantza-gastuak, lizentziak, inbertsio-gastuak, interesetatik eratorritako gastuak, errekaruak, zehapen administratiboak zein zigor-arlokoak (hala nola zergak edo Gizarte Segurantzaren ez ordaintzeagatik eratorritako zehapen administratiboak), ezta prozedura judizialen gastuak ere.

5.– Diruz lagundu daitezkeen gastutzat jotzeko, ezarritako epean egin behar dira, eta egindako gastutzat jotzeko, ordainduta egon behar dira. Diruz lagundu daitezkeen gastuak, edozein kasutan, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriko dira.

6.– Diruz lagundutako jarduerak garatzean hirugarrenak kontratatu behar badira, onuradunek bete beharko dituzte Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 29. artikuluan eta Diru-laguntzei buruzko Erregelamenduaren 68. artikuluan aurreikusitako baldintzak. Azpikontratazioaren proportzioa diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 50 izango da gehienez.

5. artikulua.– Diru-laguntzen bateragarritasuna.

1.– Agindu honetan araututako diru-laguntzak bateragarriak dira administrazio berak edo beste batzuek edo erakunde publiko edo pribatuak, nazionales, Europar Batasunekoek edo nazioarteko organismoek jarduera bererako emandako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide ekonomikoekin. Baina diru-laguntzaren zenbateko soilak edo gainerako finantzaketa-iturriekin bateratuak ezingo du diruz lagundutako jardueraren kostua inola ere gainditu.

2.– Proiektu bera gauzatzeko finantzaketa-iturriek emandako laguntzen zenbatekoa proiektuaren beraren kostua baino handiagoa izanez gero, agindu honen babesean emandako diru-laguntzaren zenbatekoa kostuaren zenbatekora murriztuko da.

6. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoaren mugak.

Proiektu bat diruz lagun daitekeela irizten bada, aurkeztutako aurrekontuaren eta, halakorik balego, beste finantzaketa-iturrien arabera zehaztuko da laguntzaren zenbatekoa. Dena den, ezingo du aurrekontu horren % 80 gainditu, ezta proiektuko 50.000 euro baino gehiagoko zenbatekoa.

7. artikulua.– Eskabidea eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Eskaera agindu honen I. eranskinean dagoen inprimaki arautuan beteko da; 21. artikuluan adierazitako egoitza elektronikoa ere egongo da eskuragarri inprimakia.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 50.6 artikuluan xedatzen denari jarraituz, erantzukizunpeko adierazpen bat jaso behar du eskaerak, honako eskaizun hauek egiaztatzeko:

a) Erakundeek legez erataka egon behar dute, eta erregistro administratibo ofizialean behar bezala izena emanda, horien izaera juridikoaren (erakundea, elkarte edo bestelakoak) eta egoitza sozialaren lurraldearen arabera, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta urtebete lehenagotik gutxienez.

b) Egiaztatu behar da erakundeak ez duela itzultze- edo zehapen-prozedurarik abian, edo horiek amaituta dituela; hortaz, diru-laguntza emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, amaituta egon beharko dute itzultze- edo zehapen-prozedurek.

c) Erakunde eskatzaileak egiaztatu behar du ez duela laguntza edo diru-laguntza publikoak jasotzea eragozten dion zehapen administratibo edo penalik, edo ez daukala horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik.

Organo kudeatzaileak zuzenean eskuratuko du, eskumena duten administrazio publikoen aurrean, entitateak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari lotutakoak beteta dituela egiaztatzen duen informazioa. Eskaeraren bidez, entitateak espresuki ukatzen badu ofiziozko jardura horretarako baimena, eskaerari gehitu beharko dizkio bi egiaztapen-ziurtagiriak, horretarako esku-mena duen organoak egindakoak.

Era berean, erantzukizunpeko adierazpenaren bidez, entitateak adieraziko du xede eta helburu berbera duen bestelako laguntzaren bat eskatu dien edo ez administrazio publiko honi edo beste

batzuei, erakunde publiko edo pribatuei, nazionaleri, Europar Batasuneko edo nazioarteko organismoari. Eskararik egin badu, laguntza eman dioten edo ebazteke dagoen adieraziko du, hori guztia agindu honen 17.5 artikuluan xedatzen den betebeharrari kalterik eragin gabe.

2.– Aurkeztutako egitasmoak GIBaren/hiesaren, CHaren edota STIen arloan izan dezakeen eragina azaltzen duen txostena: xedeak, nori zuzendua dagoen, hautatze-irizpideak, materiala eta metodoak, aurreikusitako emaitzak eta horiek baloratzeko erabiliko diren parametroak, egitasmoaren ardura izango dutenak eta eskatzaileek garrantzitsutzat jotzen duen oro.

3.– Diruz laguntzeko eskatu eta 2018an egingo diren egitasmo eta jarduerentzako aurrekontu xehatua. Horretarako, II. eranskina beteko da.

4.– Programa horiek finantzatzeko plana. Zehazki adieraziko da zein izango diren finantziario-iturriak (izena emateko kuotak, eman diren edo ebazpenaren zain dauden beste laguntza publiko edo pribatu batzuk, etab.). Beste finantziario-iturriaren bat lortuz gero, horren berri emateko konpromisoa ere adierazi behar da.

5.– Finantzaketaren xede izango litzatekeen jarduera hobeki ezagutzeko beharrezko den dokumentu osagarri oro.

8. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea.

1.– Hilabetekoa izango da eskabideak aurkezteko epea, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariari helarazi behar zaio eskabidea (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

2.– Eskaera bat aurkeztu behar da irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeak aurkeztutako proiektu bakoitzeko.

3.– Bitarteko elektronikoen bidez baino ezin dira aurkeztu eskaerak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikulua araber.

Horretarako, izapidetze elektronikoa buruzko agindu honen 21. artikuluan zehazten den bezala, egoitza elektronikora sartu beharko da helbide honetan: <http://www.osakidetza.euskadi.eus/informazioa/osasun-saila-diru-laguntzak/r85-ckproc03/eu/>.

4.– Erakunde eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dituzte eskabidea eta horri erantsi beharreko gainerako agiriak. Orobat, eskabidea aurkeztu eta ondorengo jarduketetan, eta prozedura osoan, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 6.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

9. artikulua.– Eskabideko akatsak zuzentzea.

Diru-laguntzetarako eskabide-inprimakiak ez badira deialdian zehazten den ereduari jarraituz aurkezten, guztiz betetzen, edo haiekin batera ez bada adierazitako dokumentazio guztia aurkezten, organo kudeatzaileak erakunde eskatzaileari hamar egun baldioduneko epea emango dio hutsegitea konpontzeko edo behar diren dokumentuak aurkezteko. Hori egin ezean, eskabidea ukatutzat joko dela adieraziko zaio. Organo kudeatzaileak berriazko ebazpen bat emango du, eta interesdun entitateari jakinaraziko dio, 68.1 artikuluetan xedatutakoaren araber, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 2ko 39/2015 Legearen 21. artikuluari dagokionez.

10. artikulua.– Organo kudeatzaileak datuak egiaztatzea.

1.– Erakundeak, eskaeraren bidez, baimena eman ahal izango dio organo kudeatzaileari, dagokion administrazio publikoaren aurrean kontsultatu edo eskatu ditzan erakundearen nor-tasun-datuak eta, halaber, egiazta dezan eskakizunak betetzen direla. Erakundeak baimena ematen duela ulertuko da, eskaeran ez badu espresuki aurkakoa adierazten. Ez badu baimenik ematen, ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu derrigorrez.

Organo kudeatzaileak behar beste egiaztapen egin ahal izango ditu prozedura legezkoa dela bermatzeko. Nolanahi ere, laguntzak eman eta ordainketa bakoitza egin baino lehen, beharrezko diren egiaztapenak egingo dira.

2.– Erantzukizunpeko adierazpen baten barruan edo harekin batera aurkezten diren datu, adierazpen eta dokumentuetan funtsezko zehaztasun-gabeziaren bat, faltsukeriaren bat edo ez-egiteren bat badago, prozedura bertan behera geldituko da, gertakari horiek jakiten diren unetik, horrek ekar ditzakeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak alde batera utzi gabe.

Halaber, egoera horren berri ematen duen administrazio publikoaren ebazpenak ezar dezake interesdunak itzuli behar duela diru-laguntza –hala balegokio– eta denbora-tarte jakin batez ezin izango duela helburu bereko beste prozedura bat abian jarri; hori guztia, aplikatu beharreko arauetan ezarritakoaren arabera.

11. artikulua.– Proiektuak balioesteko irizpideak.

1.– Jarraian, balioespen-irizpideak zehaztuko ditugu, eta irizpide bakoitzari zenbat puntu dagokion esango dugu. Irizpide hauek erabiliko dira, hain zuzen, eskabideen lehentasun-ordena ezartzeko. Gehienez 100 puntu eskuratu ahal izango dira, eta, gutxienez, 50 puntu. 50 puntu baino gutxiago lortzen duten eskabideek ez dute diru-laguntzarik jasoko.

a) Deialdiaren helburuarekiko egokitzapena: gehienez, 25 puntu, honela banaturik:

1) Gizonezkoekin sexu-harremanak dituzten gizonezkoen kolektiboari bideratzen diren esku hartzeko proiektuak, ikusirik, kolektibo horretan GIBak, CHak eta STIek egun duten garrantzia epidemiologikoa: 12 puntu.

2) GIBaren, CHaren eta STIen infekzioen diagnostiko goiztiarrera bideratutako proiektuak: 6 puntu.

3) GIBari, CHari eta STIei dagokienez kalteberak diren bestelako kolektiboari bideratutako proiektuak, hala nola etorkinak, bide parenteraleko droga-erabiltzaileak eta prostituzioan aritzen direnak: 5 puntu.

4) GIBa duten pertsonen laguntza psikologikoa eta soziala emateko proiektuak. 2 puntu.

b) Diseinuaren kalitate teknikoa, hau da, harreman koherentea egotea eraginpean jarri nahi diren faktoreen, lortu nahi diren helburu espezifikoaren, helburu horiek eskuratzeko aurreikusitako jardueren eta helburu horiek lortzeko adierazlearen ebaluazioaren artean. 20 puntu gehienez, jarraian banatzen den bezala:

– Proposatutako jardueraren justifikazioa: 3 puntu.

– Jardueraren bideragarritasuna eta faseen, jardueren, kokalekuaren eta iraupenaren deskribapena: 14 puntu.

– Ebaluazio metodoa: 3 puntu.

c) Erakundearen ibilbidea eta esperientzia, eta proposatutako jarduera edo proiektuaren jarraipena. 20 puntu gehienez, jarraian banatzen den bezala:

- Elkartearen ibilbidea: 10 puntu.
- Jardueraren edo proiektuaren jarraipena: 10 puntu.

d) Jardueraren diseinuan eta garapenean hainbat balio gehigarri sartuta egotea (ekintza boluntarioa, elkarlaguntza, onuradunek parte hartzea esku-hartzearen diseinuan, kudeaketan eta ebaluazioan). 10 puntu gehienez, jarraian banatzen den bezala:

- Elkarlaguntza eta boluntariora sustatzea: 5 puntu.
- Xede diren biztanleen parte-hartzea diseinuan, kudeaketan eta ebaluazioan: 5 puntu.

e) Jardueraren biztanle-estaldura (pertsonek jasotzaile- edo onuradun-kopurua, zuzenean edo zeharka) eta desberdintasun sozioekonomikoei erantzutea. 10 puntu, gehienez, jarraian banatzen den bezala:

- Jarduera-eremua: 5 puntu.
- Ezberdintasun sozioekonomikoei arreta eskaintzea: 5 puntu.

f) Jarduera gizarte-ekimeneko beste erakunde, federazio edota instituzio batzuekin elkarlanean egitea, sareko lana indartuz: 5 puntu, gehienez.

g) Proposatutako jarduerak izaera berritzailea izatea, edo aurreko urtearekin alderatuta, hobe-kuntza berritzaileak sartzeko proiektuan: 5 puntu, gehienez.

h) Ezarritako koordinazioa eta aurreikusitako sinergia, jardueraren eta osasun-esparruko eta/edo osasun- eta gizarte-esparruko prestazio, zerbitzu, jarduera edo politika publikoen artean: 5 puntu, gehienez.

2.– Diru-laguntza jaso ahal izateko, eskabideek gutxienez 32,5 puntu eskuratu beharko dute a), b) eta c) ataletako puntuazioa batuta. Atal horietako bakoitzak, bere aldetik, beste bi ataletako bakoitzaren puntuaren erdia izan beharko du, gutxienez.

12. artikulua.– Eskabideen balioespena.

1.– Aurkeztutako eskaerak balioesteko, balorazio-batzorde bat eratuko da, eta hauek izango dira kideak: Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendaria (Miren Dorronsoro Iraeta anderea) presidente gisa arituz, Hiesa eta Sexu Transmisiozko Infekzioen Planaren Arduraduna (Antonio Arraiza Armendariz jauna) eta Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariorde kargua duten pertsonak Osasun Saileko Lurralde Ordezkaritzetan (Joseba Bidaurrezaga Van-Dierdonck jauna, Elena Albisua Cortazar anderea eta Juan Carlos Fernández Crespo jauna). Kide anitzeko organoko idazkaritzari dagokionez, batzordeburuak batzordekideen artean izendatutako pertsonak beteko du. Haren zeregina izango da kide anitzeko organoaren jardueren legezkotasun formala zein materiala zaintzea, baita sektore publikoaren erregimen juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 16., 17. eta 18. artikuluetan adierazten diren bestelako funtzioak ere.

2.– Epean eta modu egokian aurkeztutako dokumentazioan oinarrituta balioetsiko ditu eskaerak balioespen-batzordeak.

3.– Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariak eta balioespen-batzordeak, beharrezko irizten badute, informazio eta dokumentazio osagarria eskatu ahal izango diete erakunde eskaetzaileei, aurkeztutako proiektua edo jarduera hobeto ulertu ahal izateko.

4.– Diru-laguntzen zenbatekoa zehazteari dagokionez, Balorazio Batzordeak erabakiko ditu programa bakoitzari eman dakioken gehieneko diru-laguntza eta jaso duen puntuazioa, agindu honen baitan adierazitako balorazio-irizpideen arabera.

Agindu honetan araututako diru-laguntzak emateko prozedura lehiaketa izango da.

Diruz lagundutako proiektu bakoitzari dagokion laguntzaren zenbatekoa zehazteko, banaketa proportzionaleko sistema bat aplikatuko da: 11. artikuluan zehaztutako irizpideak aplikatuz, balioespen-fasean lortzen den puntuazioaren arabera banatuko da 3. artikuluan zehaztutako dotazio ekonomiko osoa.

Hasierako banaketan esleitzen den zenbatekoak 6. artikuluan ezarritako mugaren bat gainditzen badu, muga hori aplikatuko da, eta soberakina balioespen-fasean lortutako puntuazioarekiko modu proportzionalan banatuko da, muga horiek gainditzen ez dituzten proiektuen artean. Birbanaketa hori egingo da banaketa baten ondoren mugaren bat gainditzen bada edo harik eta diruz lagundutako eskabide guztiak gehienezko zenbatekoen arabera ordaintzen diren arte.

5.– Aurkeztutako proiektuen ebaluazio konparatua –ezarritako irizpideen arabera– egin ondoren, eta dagozkien zenbatekoak zehaztu ondoren, agindu honetan horretarako ezarri denaren arabera, balioespen-batzordeak ebazpen-proposamena egingo dio Osasuneko sailburuordeari, eta bertan, hau adieraziko dio: zer diru-laguntza ematea proposatzen duen, elkarte onuradunak zeintzuk diren, finantzatuko den proiektu bakoitzaren zenbateko banakatuak, eta, hala badagokio, diru-laguntza ukatu zaien proiektuak zeintzuk diren, eta zergatik ukatu zaien.

13. artikulua.– Ebazpena, errekurtsioak, ebazteko eta jakinarazteko epea, jakinarazteko modua eta publikotasun-prozedura.

1.– Aurkeztutako eskaerak prozedura bakar batean izapidetuko dira. Osasuneko sailburuordearen ebazpen bidez amaituko da prozedura, balioespen-batzordearen proposamena kontuan hartuta. Entitate parte-hartzaileek prozeduran planteatutako gai guztiak erabakiko ditu ebazpenak.

2.– Ebazpenean ezarriko da eskatutako diru-laguntzak ematen edo ukatzen diren. Laguntzak ematea erabakitzen bada, honako hau adierazi beharko da: entitateak zeintzuk diren, guztira zenbateko diru-laguntza emango zaion horietako bakoitzari eta zenbat emango zaion finantzatutako proiektu bakoitzari. Eskabide ukatuen kasuan, ukatze horren zergatiak ere adierazi beharko dira.

3.– Ebazpena EHAAn argitaratzeak jakinarazpenaren ondorio berak izango ditu. Prozedura ebatzi eta ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko epea gehienez ere lau hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori igarota, ebazpenik argitaratu ez bada, interesdunek diru-laguntza eskaera ezetsi egin dela ulertu ahal izango dute, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1.a) artikuluan eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 25.5 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

4.– Ematen den ebazpenak ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez diezaiokete interesdunek Osasuneko sailburuari, hilabeteko epean, argitalpena egiten den egunaren biharamunetik aurrera, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan ezarritakoa betez.

5.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo erakunde autonomiadunek ezaugarri bereko beste laguntza edo diru-laguntzaren batzuk eman izana dela-eta horiek itzultzeko edo zigortzeko prozesuren bat oraindik ere izapidetzen ari bada, prozesu hori amaitu egin beharko da, elkarte onuradunei agindu honetan ezarritako diru-laguntzak eman eta ordaindu ahal izateko.

14. artikulua.– Diru-laguntza justifikatzea.

1.– Diruz lagundutako proiektua egin dela justifikatzeko, irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimenezko erakunde onuradunek dokumentazio hau aurkeztu behar dute:

a) Txosten teknikoa, zituzten helburuak zein mailatan bete dituzten azaltzen duena eta helburu bakoitza bete den mailari buruzko ebaluazioa egiten duena.

b) 2018. urteko gastuen memoria (III. eranskina) edo justifikazio-kontua, zeinetan adierazten baita zer dokumentu aurkezten diren eta horien zenbatekoak. Diru-laguntza emateko ebazpenean zehaztutako gastu-kontzeptuen arabera taldekatu behar dira horiek aginduaren III. eranskinean jasotako ereduaren arabera. 21. artikuluan aipatutako egoitza elektronikoan ere eskuragarri dago eredu hori.

c) Diru-laguntzaren xede den proiektua benetan gauzatu dela egiaztatzen duten fakturak edo bestelako egiaztagirak, erakunde eskatzailearen ordezkariak izenpetuta. Gainera, agiri horiek egiazkoak direla ziurtatzen duen erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu beharko du.

d) Jarduera edo zerbitzua gauzatu dutela edo diru-laguntzaren xedea bete dutela egiaztatzen duen beste edozein agiri.

Aurkeztutako agiriak jardunbide elektronikoen araubidera moldatu beharko dira, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.4 artikulua arabera, bereziki, eta 27.3 artikuluari dagokionez. Horietan, interesdunek aurkeztutako agiriak zer eskakizun bete behar dituzten arautzen da. Era berean, aintzat hartuko da Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 72. eta 73. artikuluetan ezarritakoa.

Dokumentazioa aurkezteko azken eguna 2018ko abenduaren 4a da.

2.– Emandako laguntzarekin ordaindutako gastuek diru-laguntza jaso duen jarduera gauzatean sortutakoak izan behar dute. Behar bezala justifikatutako gastuak hauek izango dira:

a) Irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimenezko erakunde onuradunaren jaulkitako igorritako ordainagiriaren bidez justifikatutakoak, ordainketa burutu dela egiaztatzeko. 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 4ra bitartean sortutako gastuei dagozkien ordainagiriak eta epe horren baitan jaulkitakoak eta ordaindutakoak soilik onartuko dira.

b) Banku-zordunketako ordainketa-agiriaren bidez justifikatutakoak (finantza-entitateek egiten dituzte, eta faktura bati dagozkion datuak izaten dituzte, zenbakia eta seriea izan ezik).

c) Lan-kontratudun langileei dagozkien gastuetan, soldaten ordainagiriaren bidez justifikatutakoak (ordainagiriak eredu ofizialen eta Gizarte Segurantzako kotizazioko aldizkari ofizialen arabera izan behar dute).

d) Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsita dauden noizbehinkako lanetan, enpresariak edo profesionalak ez diren pertsona fisikoek egiten dituztenean (hartzaileak), gastua justifikatzeko, irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimenezko erakunde onuradunak idatzi bat egingo du, eta horren ordezkariak sinatuko du. Idatzi horrek, gutxienez, honako hauek jaso behar ditu: ordezkariaren, irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimenezko erakunde onuradunaren eta hartzailearen izen-abizenak edo izen soziala, identifikazio fiskaleko zenbakia eta helbidea; eragiketaren deskribapena eta guztizko zenbatekoa; idatziaren jaulkipen-data; «jaso dut» eta pertsona hartzailearen sinadura; pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren atxikipena.

3.– Aldez aurretik eginiko gastuak ordaindu daitezke jasotako diru-laguntzarekin, baldin eta gastu horiek diru-laguntza jaso duten jardueretan sartzen diren ekintza eta kontzeptuen kostu errealak badira eta 2018. urtean sortutakoak badira.

15. artikulua.– Justifikatzeko aurkeztutako dokumentuetako akatsak zuzentzea.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, laguntza justifikatzeko aurkeztu den dokumentazioan hutsegiteren bat edo ez-egiteren bat egonez gero, erakundeari hamar egun balioduneko epea emango zaio, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita, hutsegitea konpon dezan edo eskatutako dokumentazioa aurkez dezan. Ez badu eskakizun hori epe eta modu egokian betetzen, dagokion eskakizuna egiaztatu gabe dagoela ulertuko da, eta agindu honen 22. artikuluan aurreikusitako ondorioak aplikatuko dira.

16. artikulua.– Laguntzen ordainketa.

Honela ordainduko da agindu honen babesean emandako diru-laguntzari dagokion zenbatekoa:

a) Diru-laguntzaren % 70 ordainduko da ebazpena onartu eta argitaratu eta gero, laguntza, esanbidez edo isilbidez, onartzen denean, agindu honen 17.1 artikuluan ezarritako epean.

b) Gainerakoa kobratzeko (emandako zenbatekoaren % 30a), diru-laguntza justifikatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko du erakunde onuradunak, 14. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Edozein ordainketa egin baino lehen, entitateak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari lotutakoak beteta dituela egiaztatuko da, baita diru-laguntzen alorreko itzulketa-prozeduretatik eratorritako zor guztiak ordaindu dituela ere.

17. artikulua.– Entitate onuradunen betebeharrak.

Indarrean dagoen araudiak xedatzen dituen eta ezartzekoak diren beste betebeharrak batzuk eragotzi gabe, eta, batez ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2 artikuluan ezarritako betebeharrak eragotzi gabe, agindu honetan ezarritako diru-laguntzen onuradun diren elkarteek honako betebeharrak hauek dituzte:

1.– Emandako diru-laguntza onartu beharko dute. Ildo horretatik, diru-laguntza eman izanaren ebazpena EHAAn argitaratu eta hamabost egunera, enpresa onuradunek berariaz eta idatziz laguntzari uko egiten ez badiote, laguntza onartutzat joko da.

2.– Diru-laguntzaren xede den proiektua gauzatu beharko dute, eta jasotako laguntza guztia bideratu beharko dute horretara.

3.– Hirugarren interesdunaren datuei alta emateko Eusko Jaurlaritzaren inprimakia, edo, hala dagokionean, hirugarrenaren datuak aldatzeko eskaera bete beharko dute, salbu eta aurretik Eusko Jaurlaritzan aurkeztu badira. Inprimaki hori eskuragarri dago euskadi.eus egoitzan: http://www.euskadi.eus/r33-288/es/contenidos/autorizacion/alta_terceros/es_7999/alta_terceros.html

Aurkezteko epea laguntza aurreko puntuan adierazitako onartzeko edo ukatzeko epearen berdina izango da.

4.– Aldaketaren bat izan bada diru-laguntzak ematerakoan eskatu eta kontuan hartu den betekizunaren batean, horren berri idatziz eman beharko diote organo kudeatzaileari, aldaketa gertatu eta 5 egun balioduneko epean gehienez ere.

5.– Helburu berbererako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideren bat lortu bada beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribaturen baten aldetik, horren berri eman behar diote organo kudeatzaileari, jakinarazpena jaso eta 5 egun balioduneko epean gehienez ere.

6.– Diru-laguntza emango duen erakundeari egiaztatu egin behar diote betetzen direla laguntza jasotzeko eta baliatzeko ezarritako betebeharrak eta baldintza guztiak, baita horretarako aitzakia zen jarduna gauzatu dela ere.

7.– Osasun Sailari laguntzea jarduera horiek egiaztatu, ikuskatu, segimendua egin, ebaluatu eta kontrolatzeko prozeduretan, eta honako kontrol-saio hauen mende jartzea: Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoari dagozkionak –Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuen kargura emandako laguntzak diren heinean–, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren berariazko araudian aurreikusitakoak.

8.– Jasotako funtsak zertan erabili diren frogatzen duten agiriak 5 urtez gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztatutako eta kontrolatutako izan daitezkeen bitartean.

9.– Hautatutako erakundeek agindu honen bidez finantzatutako programak edo jarduerak argitaratzen badituzte, honako testu hau jaso beharko dute espresuki: «Osasun Sailak diruz lagundua».

10.– Egitasmoak informazio materiala (idatzia zein ikus-entzunezkoa) argitaratzea ere aurreikusten badu, argitaratu aurretik Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren oniritzia eta baimena lortu beharko ditu.

18. artikulua.– Diru-laguntzaren baldintzak aldatzea.

Diru-laguntzak emateko ebazpena aldatu egin ahal izango da baldin eta diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira –betiere, diru-laguntzaren helburua betetzat jotzen bada– eta, hala badagokio, diru-laguntza horrekin batera Eusko Jaurlaritzak edo beste administrazio publiko edo erakunde publiko zein pribatu batzuek emandako diru-laguntzaren bat edo laguntzaren bat jaso bada. Horretarako, dagokion aldaketa-ebazpena emango du Osasuneko sailburuordeak, eta, han, esleitutako diru-laguntzen zenbatekoak egokituko dira. Horretarako, honako irizpide eta mugak hauek aplikatuko dira:

a) Gastuen justifikazioa diru-laguntzarako aurkeztutako eta aintzat hartutako aurrekontua baino baxuagoa bada, % 25 edo gutxiagoko aldearekin, eta hasieratik aurreikusi diren helburu guztiak lortu baldin badira, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da proportzio beraren arabera eta dagokion aldaketa-ebazpenaren bidez.

b) Aurkeztutako aurrekontuarekiko % 25 baino gehiagoko aldea baldin badago, diru-laguntzarako eskubidea galduko da.

Bi kasutan, soberan jaso dituzten zenbatekoak itzultzera behartuta egongo dira entitate onuradunak, 22. artikuluan xedatutakoaren arabera.

19. artikulua.– Diruz lagundutako proiektuaren jarraipena.

Osasun Sailak komenigarri irizitako alderdi guztiak gainbegiratuko, ikuskatuko eta egiaztatuko ditu lege honetan ezarritako arau guztiak betetzen direla bermatzeko. Halaber, publikoki erabili ahal izango ditu, uneoro, emandako diru-laguntzen bidez gauzatutako programen eta jardueren edukiak eta emaitzak.

20. artikulua.– Datuen babesa.

Agindu honetan aurreikusitako diru-laguntzak eskatzean ematen diren datuak «Laguntzak jasoko dituzten entitateak» fitxategian sartuko dira, Osasuneko sailburuaren 2007ko urriaren 4ko Aginduan ezartzen den moduan; agindu horren bitartez arautzen dira Osasun Sailaren izaera pertsonaleko datuen fitxategiak (2017ko urriaren 21eko EHAA, 201. zk., eta 2017ko azaroaren 17ko EHAA, 220. zk.), Izaera pertsonaleko datuak babesten dituen 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoari jarraikiz. Fitxategi horretako datuak ezin zaizkie hirugarrenei edo beste erakunde batzuei utzi, eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak erakunde eskatzaileen laguntzak kudeatzeko baina ez ditu erabiliko. Nahi izanez gero, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta haiei aurka egiteko eskubideak erabil ditzake nahi duenak, legean xedatutakoarekin bat etorritik; horretarako, idazki bat igorri beharko dio Osasun Sailaren Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzari.

21. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Interesa duten erakundeek bitarteko elektronikoak erabiliz eskatu, kontsultatu eta egin beharko dituzte prozedura honen izapide guztiak.

2.– Izapidetze elektronikorako zuzeneko sarbidea eta agindu honetan agertzen diren eranskinak euskadi.eus-eko honako egoitza elektronikoa honetan daude:

http://www.osakidetza.euskadi.eus/r85-ckproc03/eu/contenidos/informacion/procedimiento_administrativo/eu_proz/herritarrak_prozedurak_laguntzak.html

3.– Eskabidearen ondorengo izapideak eta izapideen jarraipena bide elektronikoen bidez egin beharko dira, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa honen bidez: <http://www.euskadi.eus/nirekudeaketak>

22. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Bere betebeharrak betetzen ez dituen entitate onuradunak eman dioten laguntza jasotzeko eskubidea galduko du. Eskubide-galeraren aitorpenak berekin dakar jasotako zenbatekoak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzultzeko betebeharra, baita sortutako berandutza-interesak ere, ordainketa egin zen unetik itzuli behar dela erabakitzen den arte.

2.– Agindu honen 17. artikuluan adierazten den edozein betebeharrak ez bada betetzen, jasotako laguntza itzuli beharko da. Artikulu horretan aurreikusi gabeko gaietan, aplikatzekoak izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 53.1 eta 53.2 artikuluetan xedatzen diren itzulketa-arrazoiak, bai eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37.1 artikuluko arrazoiak ere. Azken lege hori Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 91., 92. eta 93. artikuluen bidez garatzen da.

3.– Agindu honen 18. artikuluan xedatzen denaren arabera, halaber, jasotako laguntza itzuli beharko da emandako laguntzaren zenbatekoak –bakarrik edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekina batera– proiektuaren kostua gainditzen duenean. Kasu horretan, aipatutako kostuari dagokionez sobera jasotako zenbatekora eta dagozkion berandutze-interesetara mugatuko da itzultzeko betebeharra.

4.– Era berean, itzulketa egin beharko da baldintzak aldatzen badira, eta, ondorioz, gastuen justifikazioa aurkeztutako aurrekontua baino baxuagoa bada, 18. artikuluan adierazten den bezala.

Artikulu horretako a) atalean aipatzen den kasuan, laguntzaren zenbatekoari dagokionez soberan jasotako zenbatekoa itzuli beharko da, laguntzaren aldaketa-ebazpenaren arabera. Deialdiko

11. artikuluan jasotzen den eskabide-balioespenari dagozkion irizpideei jarraituz bideratuko da azken hori.

b) atalean aipatzen den kasuan, itzulketa erabatekoa izango da; hau da, jasotako zenbatekoaren edo zenbatekoen osotasuna itzuli beharko da.

5.– Osasuneko sailburuordearen bitartez hasi eta burutuko da itzulketa-prozedura, beharrezko prozesuak izapidetu eta gero. Prozedura abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren arabera izapidetuko da. Horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren pentzutari ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen da, eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dira.

6.– Itzultzen diren diru-kopuruak diru-sarrera publikotzat hartuko dira ondorio guztietarako.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honen bidez iragarritako deialdiari eta berau garatzeko jarduketari honako xedapen hauek aplikatuko zaizkie: Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean oinarritako araudi gisa ezarritakoa eta Diru-laguntzen Lege Orokorrearen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategia onartu zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren VI. tituluak ezarritakoa aplikatuko zaie.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera izapidetuko da prozedura.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa ezar dakioke Osasuneko sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua EHAAn argitaratu eta biharamunetik hasita.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzaren 15a.

Osasuneko sailburua,
JON DARPÓN SIERRA.

I. ERANSKINA

DIRU-LAGUNTZEN ESKABIDEA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN GIBA/HIESA, C HEPATITISA (CH) ETA SEXU-TRANSMISIOZKO INFEKZIOAK (STI) PREBENITZEKO ETA KONTROLATZEKO PROGRAMAK GARATZEN DITUZTEN IRABAZI-ASMORIK GABEKO ETA GIZARTE-EKIMENEN ERAKUNDEEI ZUZENDUA

IDENTIFIKAZIO-DATUAK

SOZIALTEAREN IZENA

Izena / Entitatearen izena *

Agiri-mota eta zenbakia/letra *

Helbidea* . Kalea _____ zk. _____ solairua _____ letra _____

PK* _____ Udalerria* _____ Lurralde historikoa / Probintzia* _____

Herrialdea* _____ Telefonoa _____

ORDEZKARIA

Izena _____

Agiri-mota eta zenbakia/letra *

Lehenengo abizena _____ Bigarren abizena _____

Sexua Gizonezkoa Emakumezkoa

Helbidea* . Kalea _____ zk. _____ solairua _____ letra _____

PK* _____ Udalerria* _____ Lurralde historikoa / Probintzia* _____

Herrialdea* _____ Telefonoa _____

JAKINARAZPEN ELEKTRONIKORAKO OHARTARAZPENA (nahi adina posta elektronikoa eta telefono mugikor-zenbaki sartu ahal izango dira, bietan, puntu eta koma (;) bidez bereizita, betiere.

3

Posta elektronikoa (puntu eta koma (;) batez banaturik) _____

Mugikorraren zk. (sms) (puntu eta koma (;) batez banaturik)

HIZKUNTZA HONETAN JASO NAHI DITUT JAKINARAZPEN ETA ABISUAK * Euskara Gaztelania

BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK

Titularraren betebeharrak fiskalei buruzko informazioa duen Zerga Administrazioa dagoen herrialdea/probintzia*

Gizarte-segurantzari buruzko informazioa duen Zerga Administrazioa dagoen herrialdea/probintzia*

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

- Ez dut diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzea eragozten didan zehazpen penal edo administratiborik; ez dut horretarako gaitasuna kentzen didan legezko debekurik ere.
 - Egiazkoak dira eskabidean eta eskabidearekin batera doazen agirietan emandako datuak.
 - Laguntza hauen onuraduna izateko indarrean dauden legeek ezarritako baldintzak betetzen ditut.
 - Erakunde eskatzailea legez eratuta eta erregistroan erregistratuta dago.*
-

Beste laguntza batzuek direla-eta, adierazi zer egoeratan zauden:

- 1. Ez dut xede eta helburu bererako beste administrazio batek emandako laguntzarik jaso.
- 2. Beste administrazio bati –publikoa nahiz pribatua– laguntza eskatu diot, eta eman egin didate (puntu honetako datuak eranskinean zehaztu behar dira).
- 3. Beste administrazio bati –publikoa nahiz pribatua– laguntza eskatu diot, eta ebazteko zain nago (puntu honetako datuak eranskinean zehaztu behar dira).

Laguntzak edo diru-laguntzak itzultzeko prozedura baten pean zaude?

- 1. Ez nago laguntzak edo diru-laguntzak itzultzeko prozedura baten pean.
- 2. Laguntzak edo diru-laguntzak itzultzeko prozedura baten pean nago (horrelako prozedura batean egoteak baldintzatu egiten du laguntzak ematea, eta hala badagokio, ordaintzea, baina ez du eragozten deialdian parte hartzea).

BAIMENAK

Baimenik ematen al diozu deialdi hau kudeatzen duen organoari, dagokion administrazio publikoari kontsulta egiteko edo nortasun-datuak eskuratzeko eta beste administrazio publiko batzuen aurrean frogatu ahal diren betebeharrak egiaztatzeko?

- Bai, baimena ematen dut.
- Ez, ez dut baimenik ematen (baimenik ez emateak berez dakar entitateak behar diren egiaztagiria aurkeztu beharra, organo kudeatzaileak eskatzen duenean eta eskatu bestetan).

DATU PERTSONALEN BABESA

Izaera pertsonaleko datuak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (DBLO) esaten dena betetzeko, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoko eta Adikzioen Zuzendaritzak jakinarazten dizu eskabide honetan adierazi dituzun datuak bere titulartasuneko «Osasun Sailaren laguntzak jasoko dituzten entitateak» izeneko fitxategian gordeko direla. Fitxategia laguntza-espeditenteak kudeatzeko erabiliko da, Datuak Babesteko Euskal Agentziari jakinarazi ondoren. Fitxategiak segurtasun-neurri egokiak dauzka, datuen segurtasuna bermatzeko. Legezko kasuetan izan ezik, datuok ez zaizkie emango hirugarrenei. Datu pertsonalak babesteari buruzko arauen arabera, DBLOk berariaz onartzen duen sartzeko, baliogabetzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubidea gauzatu nahi duenak Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzarekin jarri behar du harremanetan (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

(Titularraren edo ordezkariaren sinadura)

2018ko maiatzaren 24a, osteguna

II. ERANSKINA

PROGRAMA BAKOITZAREN AURREKONTU ZEHATZA.

LAGUNTZAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN GIBA/HIESA, C HEPATITISA (CH) ETA SEXU-TRANSMISIOZKO INFEKZIOAK (STI) PREBENITZEKO ETA KONTROLATZEKO PROGRAMAK GARATZEN DITUZTEN IRABAZI-ASMORIK GABEKO ETA GIZARTE-EKIMENEN ERAKUNDEEI ZUZENDUAK

DATU OROKORRAK

Entitatearen izena

Proiektuaren izena

PROGRAMAREN DATUAK

Partez edo osorik diru laguntzea eskatzen den programaren izena:

Programaren helburua

Programa zer kolektibori zuzentzen zaion

Kolektiboa zenbat pertsonak osatzen duten, gutxi gorabehera:

PROGRAMAREN AURREKONTU OSOAREN XEHAKAPENA

Zuzeneko gastuak: kontzeptua	Aurrekontua, guztira	Laguntza honi eskatzen zaion zenbatekoa
Langileak (nominak eta gizarte segurantzako gastuak)		
Profesional independenteen zerbitzuak		
Argitalpenak eta komunikazio-jarduerak		
Bestelako gastuak (zehaztu)		
Bestelako gastuak (zehaztu)		
Bestelako gastuak (zehaztu)		
Bestelako gastuak (zehaztu)		
Bestelako gastuak (zehaztu)		
Zuzeneko gastuak, guztira		

Zeharkako gastuak	Aurrekontua, guztira	Laguntza honi eskatzen zaion zenbatekoa (eskatutako guztizkoaren % 10, gehienez)
Alokairuak eta errentamenduak		
Kudeaketa eta administrazioa		
Bulegoko materiala		
Bestelako zerbitzuak (elektrizitatea, gasa eta abar)		
Bestelako gastuak (zehaztu)		
Zeharkako gastuak, guztira		

2018ko maiatzaren 24a, osteguna

Proiektua finantzatzeko iturriak	Zenbatekoa (euroak)
Erakundearenak berarenak	
Erabiltzaileen ekarpenak	
Laguntza honi gaur egun egindako laguntza-eskaera	
Beste erakunde batzuk (zehaztu)	
Beste erakunde batzuk (zehaztu)	
Bestelako sarrerak (zehaztu)	
Guztira	
Programarentzat eskatutako bestelako laguntza batzuk	Eskatutako zenbatekoa
Erakundea:.....	
Erakundea:.....	
Erakundea:.....	
Guztira	

ZER ERREGISTROTAN / ERROLDATAN INSKRIBATUTA DAGOEN

Erregistroaren / Erroldaren izena:*	_____
Erregistro-data	_____ Erregistro-zenbakia _____
Estatutuen arabera, hau da entitatearen helburua (hitzez hitz kopiatu): _____	

ZUZENDARITZA BATZORDEAREN OSAERA

Gobernuko kide anitzeko organoa/Erakundearen Zuzendaritza Batzordeko kideak, eskabidea aurkeztean indarrean dena eta dagokion erregistroan edo erroldan inskribatua (hitzez hitz kopiatu, eta izenak eta karguak adierazi. Erakundearen estatutuek aurreikusten ez baduten gobernuko kide anitzeko organo bat egotea, lehendakari, idazkari eta diruzain izango diren pertsonen izenak eta karguak zehaztu):

Izena	Kargua
	Presidente

(Entitatearen ordezkariaren sinadura)

2018ko maiatzaren 24a, osteguna

III. ERANSKINA

GASTUEN MEMORIA.

LAGUNTZAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN GIBAHIESA, C HEPATITISA (CH) ETA SEXU-TRANSMISIOZKO INFEKZIOAK (STI) PREBENITZEKO ETA KONTROLATZEKO PROGRAMAK GARATZEN DITUZTEN IRABAZI-ASMORIK GABEKO ETA GIZARTE-EKIMENEN ERAKUNDEEI ZUZENDUAK

DATU OROKORRAK

Entitatearen izena

Programaren izena

PROGRAMARI DEIALDI HONETAN EMANDAKO ZENBAITEKOA

2018ko maiatzaren 24a, osteguna

ZUZENEKO GASTUAK: kontzeptua	Egindako proiektuaren gastuak, guztira	Laguntza honi egotzitako kopurua	SARTUTAKO FAKTUREN ZERRENDA									
			ZK.	Dokumentuaren izaera	Kontzeptua	Emaila	Data	Zenbatekoa	Egotzitako %	Egotzitako zenbatekoa		
Langileak (nominak eta gizarte segurantzako gastuak)												
Profesional independenteen zerbitzuak												
Argitalpenak eta komunikazio-jarduerak												
Bestelako gastuak (zehaztu)												
Bestelako gastuak (zehaztu)												
Bestelako gastuak (zehaztu)												
ZUZENEKO GASTUAK, GUZTIRA												

2018ko maiatzaren 24a, osteguna

SARTUTAKO FAKTUREN ZERRENDA										
ZEHARKAKO GASTUAK: kontzeptua	Egindako proiektuaren gastuak, guztira	Laguntza honi egotzitako kopurua	Zk.	Dokumentu aren izaera	Kontzeptua	Emaillea	Data	Zenbatekoa	Egotzitako %	Egotzitako zenbatekoa
Alokairuak eta errentamenduak										
Kudeaketa eta administrazioa										
Bulegoko materiala										
Bestelako zerbitzuak (elekttrizitatea, gasa)										
Bestelako gastuak (zehaztu)										
ZEHARKAKO GASTUAK, GUZTIRA										

2018ko maiatzaren 24a, osteguna

Proiektua finantzatzeko bestelako iturriak	Zenbatekoa (euroak)
Erakundearenak berarenak	
Erabiltzaileen ekarpenak	
Beste erakunde batzuk (zehaztu)	
Beste erakunde batzuk (zehaztu)	
Bestelako sarrerak (zehaztu)	
Guztira	

Deialdi honen bidez emandako zenbatekoak gehi beste finantzaketa-iturri batzuen bidez jasotakoak ezin du egindako gastua baino handiago izan.

Adierazten dut egiazkoak direla eskaeran eta eskaerarekin batera doazen agirietan emandako datuak.

Izenpea:

Entitatearen arduraduna edo lehendakaria